

## Platone: *Fedro*

MAURO BONAZZI (ARG.)

Torino: Giulio Einaudi Editori, 2011, 286 or.

Gaur egun, ingelesaren indarra hain bortizki areagotzen ari denez, ikerlariak behartuta sentitzen dira beren artikulua eta testu zientifikoak hizkuntza horretan argitaratzera. Izan ere, anglosaxoi ikerlarien lanetan aipatutako bibliografiari men eginez gero, badirudi ingelesez idatzita ez dauden lanek ez dutela *zientifiko* izenlaguna jasotzeko eskubiderik, ezta kalitaterik ere. Balio eskaseko lan ugari dago, ordea, *lingua franca* berri honetan idatzirik eta unibertsitate ospetsuen zigilua dutenak, eta, aldiz, horren ahaltsuak ez diren hizkuntzetan idatzitako harribitxi dezente. Hala nola, argitalpen hizkuntza dela medio, euren herritik kanpora ahanzturan erori dira *Università degli Studi di Milano* unibertsitatean lan egiten duten Franco Trabattoni eta Mauro Bonazziren Platonen inguruko gogoetak, ikerketa platonikoen inguruko altxor kutunak izanagatik ere. Azken urteotan, irakasle horiek ingelesez idazteko joera hartu eta apurka-apurka merezitako ospea berenganatzen ari badira ere, gorai-patu egin nahi genituzke lehenago italieraz argitaratu dituzten lanak eta gaur egun oraindik ere euren hizkuntza den horretan idatzi dituztenak, eta iker-tzaileen esparruko hizkuntza joera berri horren kontra egin.

Hori dela eta, *Gogoa* aldizkariak eman digun aukera erabili nahi genuke unibertsitate horretako Mauro Bonazzi Antzinako Filosofiaren Historia irakaslearen lana gorai-patzeko. Izan ere, platonismoaren bilakaeraren inguruan lanean diharduen ikerlari honek Platonen *Fedro* dialogoaren itzulpen eta analisi berria prestatu du. Baten batek —egia da— oldarkor esan lekiguke gaia zaharra dela eta sobera aztertu dela dagoeneko. Alabaina, *The Plato Society* elkarteak urtero berritzen duen Platonen inguruko bibliografia zerrenda aztertzen duena<sup>1</sup> segituan jabetuko da filosofo atenastarraren inguruko ika-mika sekula ez dela amaitu. Hain zuzen ere, bere filosofia plazaratzeko ez zituen tratatuak idatzi, dialogoak baizik; haietan, Platonek berak ez du sekula zuzenean hitz egiten, bere pertsonaiek irudikatzen dituzten egoera dramatikoaren eta elkarrizketen bitartez baizik. Horren ondorioz, haren hitzen inguruko *interpretazioa* hainbestearino da zabala, non haren inguruan kontrako tesiak defendatu izan diren: batzuk dogmatiko baten eran irudikatu izan dute, eta beste batzuek es-

---

<sup>1</sup> Ik. <http://www.platosociety.org/newbibliography.html>

zeptiko baten eran. Are gehiago, platonismoa hainbeste teoria filosofikoren arabera irakurri da, ezen, Alfred North Whiteheadek dioena kontuan hartuta, Europako filosofia tradizio osoa Platonen dialogoen oin ohar segida bat baino ez dela esan genezakeen.

Platonismoaren harrera zail horren paradigma bikaina da *Fedro* dialogoa; izan ere, haren mitoen eta idatz teknikaren edertasunaren inguruan eztabaidarik egon ez bada ere, mezuaren inguruan sekula ez da platonisten artean adostasunik izan. Luc Brissonnek (2004, 64 or.) nabarmentzen duenez, arrunt esanguratsua da antzinatean lan horren gaia izendatzeko erabili izan diren azpтитuluen aniztasuna: *Edertasunari buruz* (Περὶ καλοῦ); *Maitasunari buruz* (Περὶ ἔρωτος); *Erretorikari buruz* (Περὶ ῥητορικῆς); *Arimari buruz* (Περὶ ψυχῆς); *Ongiari buruz* (Περὶ τἀγαθοῦ); *Lehen ongiari buruz* (Περὶ τοῦ πρώτου καλοῦ); *Ongiari buruz, bere orokortasunean* (Περὶ τοῦ παντοδαποῦ καλοῦ). Antzinakoak ados jartzen ez ziren bezala, irakurle moderno eta garaikideak ere ez datoz bat dialogo horren gaiaren inguruan.

Testuaren hari nagusia ez da agerikoa, eta ez da errazagoa haren batasun sakona eta esanahia behar den bezala ulertzea. Aipagarria da Rowe (1986; 1989) eta Heath (1989a; 1989b) irakasleek laurogeigarren hamarkadaren amaieran izan zuten eztabaida, baina *Fedroren* itzulpen berriek eta berriki argitaratutako artikuluek, hala nola Werner (2007) eta Moss (2012) irakasleenek, nabarian uzten dute lanaren batasun sakona ulertzeak arazo itzelak plazaratzen dituela oraindik. Hortaz, begien bistakoa da, gaiari eta osotasunari buruzko eztabaida puri-purian dagoenez, dialogoaren beraren interpretazioa ikuspuntu askotatik landu dutela eta Platonen irudi askotarikoak erakutsi dituztela. *Fedro* lan oso erreflexiboa dela kontuan hartuz gero —besteak beste idazketa-aren balioaz (ik. *Fedro* 274b-279c) gogoeta egiten baitu (baita Platonen beraren idazketaz ere)—, ulertzekoa da hainbat eskolak euren tesia defendatzeko proba pribilegiatutzat erabiltzeko izan duten joera. Ondorioa larria da, baina: zantzu bera, hau da, testu bakarra, kontrako tesiak defendatzeko erabili izan da, eta dialogoari esanahi erabat ezberdinak egotzi zaizkio; hala, *platonismo* esaten zaion hori ezaugarri askorekin irudikatu da. Beste era batean esanda, hermeneutika eskolek dialogoa beren interesetara moldatu dute urteetan.

Norbaitek argudia lezake azaldu berri dena ez dela inondik ere arazo bat, Platonen idatz teknikaren maisutasunaren fruitua baizik. Izan ere, filosofia ez da behin betiko formula zurrund edo proposizio finko batzuen bidez transmititzen den ezagutza, baizik eta uneoro berritzen den gogoeta bizia, eta Platonen dialogoek, hain zuzen ere, dogma baten jarraipena ez, eztabaida bizi eta berritua sustatu izan dute mendeetan. Alabaina, nahiz eta filosofia, baita Platonena ere, norberaren eta besteen sinesmenak etengabe aztertzen dituen jardute bizi batekin lotuta dagoen, Filosofiaren Historiaren alorrean lan egiten dugunok ez dugu eskubiderik Akademiako burua izan zen hura gure nahieran irudikatzeko. Historialariak garen aldetik eta Platonen eta platonismoaren in-

guruan gogoeta egiten dugunez gero, premiazkoa zaigu idazle horren eta haren pentsamenduaren inguruan ezaugarri bateratua eta koherentea lortzen saiatzea. Are eta gehiago, kontuan hartzen badugu filosofian lehen urratsak egiten hasten diren askok interpreteen testuen bitartez jasotzen dutela Platonen inguruko lehen iritzia, eta iritzi horrek Platonen testuen irakurketa determinatzen du. Hortaz, idazle eta filosofo hartaz ari garenean, tentuz ibili behar dugu, eta geure eta Platonen irakurle diren horiekiko ardura eta erantzukizuna agertu.

Arazo hori saihesten saiatzeko, funtsezkoa zaigu, lehenik eta behin, argi uztea *Fedro* dialogoa ez dela pentsamendu librerako gonbita. Ferrariren (1987) eta beste batzuen irakurketa proposamenetan Platon modernoa eta erakargarria irudikatzen badute ere, jakin badakigu Akademikoak maiz idatzi zuela bere lanetan erlatibismoaren ordezkariak zirenen kontra. Beraz, *Fedro* dialogoak pentsamolde kritiko baten alde eta elkarrizketan oinarritutako eztabaida etengabe baten aldeko mezuak erakusten baditu ere, komeni da, lehenik eta behin, egilearen jarrera eta proposamena erlatibismotik zehatz-mehatz bereiztea. Liburu honetan bertan, horrela defendatzen du Bonazzik ere (2011, xxxv-xxxvi or.):

Jakina, ez da komeni gauza horretatik [hau da, dialogoan azaltzen den etengabeko eztabaidarako gonbitetik] Platonen irudi sobera «ireki» bat ondorioztatzea, bere irakaskuntzak aurkitzera baino, bila aritzera gonbidatuko balu bezala. Kontrakoa baita, alegia!<sup>2</sup>

Platon erlatibismo politiko, kultural eta epistemologikoaren kontra borrokatu zen beti, eta, hori hala bada, ez daiteke ukatu, besteak beste, Ideien existentzian, arimaren hilezkortasunean eta *anamnesia* gauatzeko aukeran sinesen zuela. Bestela, bere dialogoetan aurkezten den heroi berria, Sokrates alegia, ez litzateke *sofista* esaten zaien horiekin ezertan ezberdinduko. Dialogoak, ordea, haien eta Sokratesen nortasuna era zehatzean eta zorrotzean bereizteko saioa dira hein handi batean; hor, Sokratesen jarreraren bitartez filosofoaren eredu paradigmaticoa eskaintzen da. Sokratesen etengabeko azterketak eta haren jarrera Ideien Mundura begirakoak ez balira, bere jarduerak eszeptizismora eta erlatibismora eramango gintuzke, eta hori da, hain zuzen ere, Platonnek saihestu nahi zuen arazo handietariko bat.

Funtsezkoak diren oinarri hermeneutiko hauek bistatik galdu gabe, Bonazzi irakasleak dialogo zail hori ulertzeko oso baliagarria den hitzaurre argia eta sintetikoa dakar bere lanean. Horri esker, testua oso lagungarria suertatuko

<sup>2</sup> Bonazzi (2011, xxxv-xxxvi or.): «Naturalmente, non si deve inferire essere da ciò un'immagine troppo «aperta» di Platone, come se il suo insegnamento invitasse più a cercare che a trovare: tutto al contrario!»

zaie Platonen inguruan hasiberriak direnei eta dialogo hau lehen aldiz irakurzen dutenei. Era berean, filosofo atenastarraren inguruan adituak direnenezako eta ikerlan espezializatuago baten premia dutenentzako ere oso aproposa da haren argitalpen berria: alde batetik, liburuak testu grekoa eta itzulpena paraleloan ipintzen dituzenez, irakurleak testu originalarekin lan egiteko aukera du beti; bestetik, itzulpenean zehar barreiatutako 303 oin ohar erudituek testu grekoak azaltzen dituen arazoak aztertzen dituzte eta beste adituek proposatutako irakurketa eta interpretazioak ere.

Dagoeneko, platonismoaren anizkoiztasun hermeneutikoaren zenbait arriskuz aritu gara, filosofo honenganako interesa duen eta sarrera moduko edo interpretazio lagungarri baten bila dabilen hura tentuz ibili dadin iradokitzeke. Gainera, oinarri teoriko gutxi batzuk eskaini ditugu, eta Bonazzi irakaslearen lanak era zorrotzean betetzen dituela bermatu dugu. Hemendik aurrerakoan, haren analisiaren tesi nagusiak aipatuko ditugu, iruzkin honen hasieran agertu ditugun arazoak —hau da, dialogoaren gai nagusia zein den eta bere batasun sakona zertan datzan— nola konpontzen dituen ikusteko.

*Palinodian* (ik. *Fedro* 243e9-257b6) edo Sokratesen bigarren hitzaldian azaltzen denaren arabera, egiazko ezagutza mota (τὸ τῆς ἀληθοῦς ἐπιστήμης γένος, 247c8) benetan existitzen den errealitatea (οὐσία ὄντως οὐσα, 247c7) —hau da, Ideiak— begiztatuz lortzen da soilik. Alabaina, zeruaren ertzaz haratago daudenez, hau da, transzendenteak direnez, gizakiei euren egoera haragiztatuan ezinezkoa zaie haiek ikustea. Hortaz, ezagutza motarik benetakoena ez dago gizakiaren eskura, hura lurrean dagoen bitartean; horrek, ordea, ez du esan nahi inolako ezagutzarik lortu ezin duenik: behin batean, gizakiaren arima gorputza den espetxe horretatik aske zegoela, jainko zerutiarren prozesio bati jarraituz, Ideiak ikusi zituen. Lurrera erori eta gorputz batean haragiztatzean, benetako errealitatea ezagutu zuela ahaztu egiten du. Hala ere, ahalez behintzat, behinola Ideiak bere ariman utzi zuen arrastoa *gogoratze*ko gai da, eta, alde horretatik, gogorapena ongi egiten badu, egia (*berr*)ezagutzeko gaitasuna izango du. Platonen arabera, ezagutzea hein handi batean gogoratzea da, eta dialektikak *anamnesian* ageri den prozesu gogorazlea bultzatzeko balio du.

*Palinodiako* eskema horri so eginez, Bonazzik Delfosko orakuluaren mandatua (ik. *Fedro* 229e5-6) hartzen du dialogoko gai aniztasunaren ardatz: *ezagutu zeure burua* (γνώθι σαυτὸν). Hortaz, hor ageri diren gaiak ezagutzea —hala nola maitasuna, arima, mugimendua, erretorika, edertasuna, idazketa, hitzaldia (λόγος) eta arrazoimena (λόγος)—, nolabait, filosofoak bere gain hartzen duen mandatua burutzea litzake, hau da, bere burua ezagutzea. Beste era batean esanda, Platonen arabera, filosofia behinola benetako errealitateak arimetan utzi zuen ezagutza gogoratzen laguntzen duen jarduera teoriko-praktikoa denez, bere buruaren benetako natura behar den eran ulertzen duenak errealitatearen benetako ezagutza eskuratuko du. Hori da platonismoaren pa-

radoxarik garbienetako bat: errealitatetik haraindiko errealitateen bila joateko, barne bidaia edo introspektzioa da biderik aproposena.

Haragiztatzean, gizakiok pairatzen dugun ahanztura sakona baita, neurri handi batean, Platonek irakurlearen zeregina errazten du, eta arimaren naturaren inguruan nabarmen luzatzen da, Sokratesen *palinodia* dela medio. Era berean, gure arimaren izaera eta haragiztatzearen aurreko egoeraren ingurukoak konprenitzen baditugu, maitasunaren natura segituan ulertuko dugu. Hain zuzen ere, maitasuna arima guztiok Edertasunaren Ideiarekiko sentitzen dugun desira naturala baino ez da, baina, horren eta gure arimaren beraren egiazko nortasuna ahaztu ditugunez, lurrean gaudelarik, oro har ez gara horretaz ohartzen. Alabaina, errealitate fisikoetan, ikusmenarekin antzematen dugun edertasuna —egiazko Edertasunaren isla baino ez izanik ere— benetako edertasuna balitz bezala hartzen dugu, eta gure desirak sortzen duen energia guztia horretara bideratzen dugu. Hain zuzen ere, horretan datza filosofoaren jarreraren berezitasuna: edertasun fisikoa benetakoaren isla denez, azken honen gogorapena berreskuratzeko aukera ematen digu; filosofoa da, ordea, aukera hori behar den moduan profitatzen duen bakarra, edertasun fisikoak sortutako bulkada benetako Edertasunera bideratuta. Errealitaterik biribilenak Ideiak dira, eta haiek ematen dute soilik benetako ezagutza, gure arimaren nortasuna hobetzen dutena. Filosofoa da maitasuna zer den dakien bakarra, horren jatorria zein den badakielako eta beregan Ideiek utzitako aztarnen zantzuak kontuan hartzen dituelako, eta horregatik da era zuzenean maitatzen duen bakarra.

Beraz, ez da arraroa testu horretan Platon maitasunaren inguruan mintzatu izana filosofoa irudikatzeo helburuarekin. Maitasuna da, hain zuzen ere, gizaki bat benetako errealitatearen ezagutza eskuratzen lagun dezakeen pasioa. Maitasuna (ἔρως) eta arrazoia (λόγος) ulertu eta elkarren artean lotzen dituen jarrera berezi bat baino ez da filosofia, jarrerarik zentzuzkoena, alegia. Horregatik, *maitasuna eta arrazoimena gure nortasuna definitzen duten bi potentzia nagusi izanda*, horren inguruan gogoeta egitea geure buruaren inguruko gogoeta egitea baino ez da. Izanak izan, esan dugunez, gizaki haragiztatuak ezin ditu Ideiak zuzenean antzeman, arima bakoitzean dauden aztarnak gogoratuta baizik. Hain zuzen ere, *ezagutza diskurtsiborekin* eta erretorikarekin du zerikusi nabarmena kontu horrek.

Nahiz eta benetako errealitatea haraindikoa, finkoa eta aldaezina den, ezagutza beti arima batean gertatzen da. Areago, hura ezagutzeko bide bakarra oroimenarekin lotuta dago; Ideiak ezin ditugu zuzenean ezagutu, haiek behinola gure ariman utzi zuten arrastoaren bidez baizik. Hortaz, argi eduki behar dugu gizakiaren ezagutza, nahiz eta errealitate objektibo batzuetara bideratuta dagoen, subjektibotasunarekin lotuta dagoela beti. Filosofoak behin betiko ezagutza bilatzen du, baina benetako errealitatea ezin duenez zuzenean begiztatu —arrazoieta (λόγος) eta hitzaldiak (λόγοι) erabiltzeko premia du, zeharka hura erdiesteko— eta pentsatzean, gogoratzean eta hitz egitean tronpatu egin daite-

keenez, bere bizia azterketari lotu behar dio beti. Gure uste eta ziurtasunen inguruan gogoeta egiteko premia dugu, ezagutza hein handi batean kontzientzia hartzea baino ez baita, hau da, zer eta nolakoak garen jakiten zorrotz saiatzeara.

Ez hori bakarrik: aztergai dugun dialogoan, Fedro da Sokratesen solaskidea, hitzaldiek txunditzen duten gizona, alegia. Fedroren desioa (ἔρωσις) hitzaldieta-  
ra (λόγοι) emana dago, baina Sokratesek bizimodu filosofiko batera eraman nahi du. Beste era batera esanda: Fedrorentzat diskurtsoak dira helburua; Sokratesek, baina, hitzaldiak errealitatea eta norbere burua ezagutzera iristeko bitartekoa direla ulertarazi nahi dio. Horretarako, Fedro limurtu beharra dauka. Ezagutza beti subjektibotasunarekin erlazionatuta dagoenez —baita ezagutza filosofikoa ere—, funtsezkoa da erretorika —hau da, hitzaldien (λόγοι) eta argudioen (λόγοι) bitartez arimen desioa (ἔρωσις) bideratzen duen teknika—. Bizimodu filosofikoa aukeratzeko, arima batek bere desioa hitzaldi eta arrazonamendu konkretu batzuekin limurtzeko premia du, eta horregatik da hain garrantzitsua erretorikaren gaia dialogoaren bigarren zatian. Edonola ere, pertsuasioaren gaia maitasunarekin edo desirarekin batera ulertu behar da beti, eta ez hori bakarrik: filosofia limurtzearekin estu loturik badago ere, Fedro filosofo bilakatuko bada, ez da aski kanpotik limurtzea. Filosofia irakastea norbanakoa bere buruaren inguruan gogoeta egitera limurtzea da, eta gogoeta hori norberak egin behar du. Sokratesek Fedro filosofiaren bertuteaz konbentzituko balu baina azken honek Delfosko orakuluaren mandatua bere gain hartuko ez balu —hau da, introspektzioa bere kabuz egingo ez balu— edo, beste era batera esanda, Sokratesek arimaren eta errealitatearen inguruan eman dituen berriekin asebeteko balitz, orduan Sokratesen saioa kamutsa izango litzateke. Filosofia ez da edozein limurtze, baizik eta geure buruaren ezagutza bilatzera bultzatzen gaituen pertsuasioa, hau da, dialektikara bideratzen gaituena. Horra nola lotzen den Delfosko orakuluaren agindua bere garaian Trabattoni (1995) irakasleak trebetasunez aztertu zuen *arimen bideratzearen* (ψυχολογία) gaiarekin.

Ezagutza beti ariman gertatzen denez eta ezagutzea gogoratzea denez, jakituria ez daiteke irakatsi testu edo hitzaldi konkretu eta kanpoko baten bidez, dogma edo arau segida zurrun bat balitz bezala. Preseski, horregatik Platonek ez zuen trataturik idatzi! Benetako ezagutza ikasten duenaren *ariman idazten* dena baino ez da (ik. *Fedro* 276a5-6) eta, horretarako, (berr)ezagutzeko introspektzioa da bide bakarra. Gainera, norbere burua ezagutzeak, barne gogoeta bizia eta autonomia eskatzen duen aldetik, ariman benetako jakituria berridaztea dakar. Hortaz, benetako irakaspen bat bilatzen dutenek zera eduki beharko dute kontuan: idatziak izan nahiz ahozkoak izan, kanpotik datozen hitzaldiek ezin dute ezagupen garrantzitsurik eman. Izan ere, hitzaldi garrantzitsuena norbanako bakoitzak bere arimarekin gogoetan martxan jartzen duen elkarrizketa da.

Beraz, Milango unibertsitatean lan egiten duen irakasle honen tesiaren arabera dialogoko gai ugariak mandatu bakar batean biltzen dira era harmoni-

koan: *ezagutu zeure burua*. Horri esker, dialogoaren gai nagusia eta bere batasun sakona era ulergarrian agertzen dira: norberak bere burua ezagutzea eta filosofian jardutea baliokideak dira; azken finean, *Fedro* dialogoak, beste dialogoen antzera, filosofiaren berezitasuna ezaugarritzeko helburua du, beste irakaskuntza mota batzuekin alderatuz.

Egilearen tesia iruzkinduta, komeni da testuaren hondarreen datorren 16 orriko erreferentzia bibliografiko zehatz, aberats eta eguneratua aipatzea, Platonen inguruan hasiberria nahiz aditua denarentzat oso lagungarria izango baita. Azkenik, behin testuaren baliagarritasuna eta dohainak aipatuta, testu honen hasierari helduz eta iruzkina amaitzeko, Bonazzi irakaslearen lana behar den moduan txalotu nahi genuke, izan ere haren lanak merezi du eta. Gero eta gehiago, ingelesa da ikerketaren esparruan hizkuntza nagusia; beste hizkuntzetan argitaratzen diren lanei bizkarra ematea, ordea, ez da inondik ere jarrera zientifikoa, ez eta egokia ere, ikertzaile bikainen lanak alde batera utzi eta eztabaida zientifikoa ahultzen duen jokabidea baizik.

## Erreferentzia bibliografikoak

- BONAZZI, MAURO (arg.) (2011), *Platone: Fedro*, Traduzione e cura di M. Bonazzi, Torino: Giulio Einaudi Editore.
- BRISSON, LUC (2004), *Platon, Phèdre*, Traduction, introduction et notes par L. Brisson, Paris: Flammarion.
- FERRARI, GIOVANNI R. F. (1987), *Listening to the Cicadas. A Study of Plato's «Phaedrus»*. Cambridge: Cambridge University Press.
- HEATH, MALCOLM (1989a), «The Unity of Plato's *Phaedrus*». *Oxford Studies in Ancient Philosophy* 7: 151-173.
- (1989b), «The Unity of the *Phaedrus*: A Postscript». *Oxford Studies in Ancient Philosophy* 7: 189-191.
- MOSS, JESSICA (2012), «Soul-Leading: The Unity of the *Phaedrus*, Again». *Oxford Studies in Ancient Philosophy* 43: 1-23.
- ROWE, CHRISTOPHER J., (1986), «The Argument and Structure of Plato's *Phaedrus*». *Proceedings of the Cambridge Philological Society* 32: 106-125.
- (1989), «The Unity of the *Phaedrus*: A Reply to Heath». *Oxford Studies in Ancient Philosophy* 7: 175-188.
- TRABATTONI, FRANCO (arg.) (1995), *Platone: Fedro*, A cura di F. Trabattoni, Milano: Bruno Mondadori.
- WERNER, DANIEL S. (2007), «Plato's *Phaedrus* and the Problem of Unity». *Oxford Studies in Ancient Philosophy* 32: 91-137.

*Jonathan Lavilla de Lera*

Departament d'Història de la Filosofia, Estètica i Filosofia de la Cultura (Universitat de Barcelona) eta EIDOS, Hermenèutica, platonisme i modernitat